

Kirolaren Egun arrakastatsua Iruñean



Nafarroako Unibertsitateak zortzigarren urtez antolatu zuen kirola sustatzeko besta, Iruñeko campusean

Eduarne Elizondo • Iruñea

Kirolaren Eguna arrakasta osoz eta eguzkipean igaro zen, Nafarroako Unibertsitatean, Iruñean, joan den larunbatean. Zortzigarren aldia izan da aurten goa. 2.500 kirolarik parte hartu zuten; baina, campusera hurbildu zen jendea kontuan hartuta, 12.000 lagun inguru bildu zituen larunbateko ekitaldiak Nafarroako Unibertsitatean, Gabriel Arroyo antolatzaileak EGUNKARIARI azaldu dionez.

«Dena oso ongi atera zen; eguraldia lagun izan genuen eta jendea parte hartzera animatu zen», nabarmendu du Arroyok, Kirolaren Eguneko koordinatzaileak.

Era askotako kirol probatan parte hartzeko aukera izan zu-

ten ikasleek; tartean, taekwondo, futbol, judo edo saskibaloian. Zaku lasterketak, pultsu saioak eta azkon jaurtiketak ere izan ziren, besteak beste.

Kirolaren Egunak ikasleen zaletasuna piztu eta bultzatu nahi du, baina eskaintzen du tarterik kirolari profesional eta

ezagunentzat ere. Mieltxo Saralegik, adibidez, erakustaldia egin zuen harriekin, eta Joxe Miguel Peñagarikano gipuzkoarrak, berriz, enborrak nola moztzen diren erakutsi zien unibertsitatean bildutakoei.

Taekwondoa izan zen proba guztien artean ikusmin handiena sortu zuen kirola. Liburutegiaren ondoan erakustaldia egin zuten Nafarroako Unibertsitateko Taekwondo eskolako kideek, eta han egon zen, haiei so, Gabriel Esparza, Sydneyko Olinpiar Jokoetan domina irabazi zuen kirolari nafarra. Aurten proba berriek ere jende ugari erakarri zuten, Arroyoren hitzetan: hain zuzen ere, patinaje lasterketak, padel partidak eta burtziketa egin dira Kirolaren Egunean aurreneko aldiz.

2.500 ikasle aritu ziren Nafarroako Unibertsitateak antolaturiko kirol saioetan



Nafarroako Unibertsitatearen Kirolaren VIII. Egunean kirola egin eta ikusteko aukera izan zuten Iruñeko campusera joan zirenek.

UNI BERTSITATEKO AGENDA

Antzerkia

Unibertsoaren jatorria azalduko du gaur Teatro Meridional antzerki taldeak. ■ *QfwFq. Unibertsoaren historia* bat da Teatro Meridional antzerki taldeak Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako campuseko Areto Nagusian antzeztuko duen lanaren izenburua. Baserrian bizi den familia batek hartuko du historia azaltzeko ardura, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

Musika

Gorka Sarriegi abeslariak EHUKo Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean kantatuko du. ■ Datorren asteartean, hilaren 22an, Gorka Sarriegi kantariaren errezitaldia egongo da EHUK Sarriekon duen campusean. Sorotan Bele taldeko kide izandakoaren kontzertua arratsaldeko 19:30ean hasiko da, eta sarrera ordaindu beharrik ez da egongo.

Zinema

Costa Gravasen 'Z (ou anatomie d'un assassinat)' filmarekin amaituko da NUPen zinema zikloa. ■ Alfabetoaren arabera antolaturiko zinema zikloko azkeneko filma gaur ikusi ahal izango da, Olite zinemetan, gaueko 22:30ean. 1968an egindako *Z (ou anatomie d'un assassinat)* filma zinema politikoaren lehenengoetako adierazgarria izan zen.

Hitzaldia

Espainiako Nazioarteko Kooperaziorako Estatu Idazkari Cortesen hitzaldia gaur Iruñean. ■ Gaur, eguerdiko 13:00etan, Nafarroako Unibertsitateko Gizarte Zientzien eraikineko 14 gelan, *Kooperazioa mundu globalean* izeneko hitzaldia emango du Miguel Angel Cortesek, Espainiako Nazioarteko Kooperaziorako eta Hego Amerikarako Estatu Idazkariak.